PORRONTXO JAIAK

2011

IRAILAK 9TIK 18RA

DONOSTIAKO AUZOETAKO JAI HERRIKOIEN KOORDINADORA

COORDINADORA DE FIESTAS POPULARES DE BARRIOS DE SAN SEBASTIAN



EGIA

GORA PORRONTXO JAIAK!

30 urte pasa dira jada. Ilusioz beteriko unea zen. Auzoko giroa hobetu eta bateratzeko asmoarekin, Arrano Elkartean biltzen zen jende gaztez osatutako talde bat zegoen. Lehen erronketako bat, auzoko jendearentzat irekia izango ziren jai alternatibo batzuk egitea zen. Jaien antolaketa, ekintzen egikaritze eta jaien gozamena, gizon zein emakumezkoentzat izango zen, nola ez. Gaur egun ohikoa bada ere, garai hartan salbuespen bat zen, Euskal Herriko lehen kasuetariko bat alegia.

Bigarrenik, euskara indartu beharra zegoen, bai jai jardueretan, baita iragarki, kartel zein pankartetan ere. Garai hartan euskara baldintza okerragoetan zegoen, denbora gutxi zen Ikastolan haurtzaindegi bat ireki zela, baita helduentzako gau-eskolak bere ateak ireki zituela ere.

Parte hartzea izan zen beste erronketako bat. Egiatarrok jolastuz, salto eginez, dantzatuz edo besterik gabe hitz eginez, parte hartzaile sentitzea zen helburu, ez auzotarrak ikusle pasibo soilak izatea.

Bileretan utopikoak ziruditen ideiak azaltzen joan ziren.

Bada, utopia hori egi bilakatu zen 1982ko irailaren 16an, arratsaldeko zazpietan, algaren inguruan botatako eztanda handi batekin.

Jaiak egonkortzen joan ziren koadrilen parte hartze garrantzitsuarekin batera.

Gaur egun, lauzpabost eguneko iraupena badute ere, horren aurretik badira hainbat koadrilen batzar orokor. Jaien hasieraren aurretik, jada jai-giroa nabari da; tabernetan koadrilen bilerak ikusten dira, gazte batzuk ezkilara gainean auzoa apaintzen, txosnak eraikitzen, jai-egitaraua banatzen, pilota edo museko lehen finalerdiak jokatzen.

Badira jaietan jarduera berezi batzuk: koadrilen jaitsiera koloretsua kalejiran, blusen salto eta gozamenarekin batera. Baita haur-jaitsiera ere, ura eta ura! eskatuz, haur guztiak blai uzten dituena. Koadrilen afaria, blusa guztiak elkartzen dituena, euren menu goxo eta anitzekin.

Egun horietan zehar, inoiz hitz egiten ez duzun bizilagunarekin topo egin eta bere bizitza kontatzen dizu. Bada beste une berezi bat ere, urte batzuk atzera zure ondoan jaiak gozatzen aritu eta indarrez auzotik urrundu duten senide edo laguna oroitzeko tartea, harekin komunikatzeko aukera bakarra gutun bat edota bisita bat egitea delarik. Jada, urte asko dirauen egoera hau konpontzea espero dugu.

Urteak joan eta urteak etorri, belaunaldi berriek jaiak egonkortu, berritu eta hobetu dituzte.

Adin guztietako egiatar guztiak gonbidatzen ditugu gozamenera. "Gozatu gabeko lau egun hauek, galdutako lau egun izango dira!". Zeuen etxe-atariak ikurrinaz, globoekin... apain itzazue!

Aurten alkatetza berriarekin liskar gutxiago eta gozamenerako denbora gehiago izatea espero dugu.

Nola aldatu diren gauzak! 30 urte pasa ondoren, bilobak ikastolatik etortzen zaizkigu Porrontxo eta Porrontxina erraldoien marrazki batekin, –Goazen aitona, amona, goazen buruhandien bila! esanez.

PORRONTX

Irailak

eGIAKO

9 Motorrak berotzen OSTIRALA

14:00 Bazkaria Antxuenen musikaz alaituta.

17:00 SIN TOTXA FESTA. Luzerako joko du!!!

12-13-14

PEGATA ERAKUSKETA IRAUNKORRA PLAZA HAUNDIN

ASTELEHENA Badator badatorrena

17:00 Txikienen gozamenerako, eta haundien inbiditarako, APAR FESTA Plaza Haundin, Amalurrekin. Donostia Kultura.

ASTEARTEA Ez da ez lehena

17:00 MARGO TAILERRA eta ERAKUSKETA etxeko txikienentzat. Ez ahaztu! Pintzelak norberak etxetik ekarri! Eta gero txokolate bero-bero eta goxo-goxoa! Ummm!

18:00 ...baina utzi lekua TALO TAILERRA egingo dugu ondoren trikitilariek alaituta.

19:00 Sudur puntan ikus-entzunezko lagunketa Plaza Haundin SIN TOTXAren eskutik.

ASTEAZKENA Gastroporrontxoa

17:00 JOLASAK Haur eta Gaztetxoentzat Plaza Haundin.

18:30 PORRONTXO JAIETAKO TABERNEN III. PINTXO LEHIAKETA Plaza Haundin trikitixak alaituta. Utzi baten bat berandu iristen denarentzat!

20:00 ALDATZEN LAGUNTZEN taldeak aurkeztuta: "ISPILUA" antzezlana. Non? Non ba! Frantziskotarretan!

15 Gora gu ta gutarrak! OSTEGUNA

17:00 BURUHAUNDI eta ERRALDOIAK LAGUNAK txarangak gidatuta.

17:05 Zatozte Jaitsiera hasi aurretik AURPEGIA MARGOTZERA Karmengo Ama 60 zenbakian Topagune parean.

17:30 HAURREN JAITSIERA Porrontxinarekin, Porrontxorekin eta buruhaundiekin. Aupa gaztiak! (Eta gurasoak! Jeje).

18:30 Artxila! Murtxila! ...Eta bat-batean TXAN MAGOA Plaza Haundin azalduko da! Adi beraz.

19:00 Atotxan ORGEN PRESTAKETA eta KOADRILENTZAKO ASKARIA. Baten batek ez badu ulertu, agian alderantziz ere galde daiteke... KOADRILLENTZAKO APARI MERIENDA afaltzea ere ahazten zaionarentzako eta kalean gora behar bezala joateko KARROEN TUNIÑ TALLERRA.

20:00 30 urtez festaren bihotz izan zaretenoi, martxosoenak zeraten horiei, BETERANOEI OMENALDIA + PREGOIA + TXUPINAZOA!!!

20:01 ORGAK (lehenago aipatutako KARRO horiek) ahal bezala hartu eta burua galdu gabe goazen KALIAN GORA IGOERA PORRONTXO & PORRONTXINA buru eta LAGUNAK txaranga erritmoa jartzen...

21:00 BATUKADAK hartuko dio lekukoa txarangari TAUPADA taldearekin.

22:00 Koadrilen KARAOKEA Plaza Berriko karpan. Adios Paris.

22:30 LAIOTZ taldearen emanaldia Plaza Haundin.

22:30 Ohitura onak ez galtzeko BALDARRAK Txaranga auzoan zehar.

01:00 KOADRILENTZAKO JOLASAK Plaza Haundin. Parte hartu!

16 Haur eta gazte eguna OSTIRALA

11:00 ENTZIERROA Tejeria kalean. Ez ahaztu egunkaria!

12:00 HIPO eta TOMAX PAILAZOAK Plaza Haundin Donostia Kulturak lagunduta.

12:00 Erregaia sabelerako: Plaza Haundin HAMABITAKOA (12tan dalako) eta TRIKITILARIEK jarriko dute giroa, seguru.

17:00 Adinekoek ere goza dezaten TRIKITILARIAK Aldakoneako egoitzara joango dira. GORA AITON-AMONAK! Onenak zeate!

17:00 Kriston festa: Porrontxina & Porrontxo, Buruhaundiak & Erraldoiak eta BOLINGA SOUND SYSTEM. (Super heroien mozorro festa).

18:00 Haur eta gaztetxoak zatozte Plaza Haundira! ANTXETA-TTAN TTAKUNek ekintza mordoa antolatuko dizue!

19:30 STARRING: TRAPU ZAHARRAK taldea. Antzezlan mundiala dakarte Plaza Haundira.

20:00 Haurrentzat (gurasoei batez!) AFARI-MERIENDA Plaza Haundin pilotaleku ondoan.

20:30 ONGI-ETORRIA atzerriko lagunei PATXARANGA 13ren laguntzaz (beste auzoetakoei alegiya). Non? Muga igarobidean pasadizoan.

21:30 ZEZENSUZKOA Tejeria kalean. Harrapatzen bazaitu?! ...Lasai badago asegurua.

22:30 Plaza Haundin DULTZEMENEOA TRAKETS taldearekin.

23:00 BOLINGA SOUND SYSTEM auzoan zehar.

01:00 KOADRILEN JOLASAK Plaza Gorrin. Baten bat ez bada goatzen Plaza Haundi ondoko plazatxo Gorrian.

03:30 Hotzez dagoenarentzat edo bero-bero dijoanarentzat. TXOKOLATE BEROA Plaza Haundin. Ahaztu gabe: edateko da.

Gazte eguna
Aupa Gaztiak! (Eta puretillak!)

16:30 Trikitilarien laguntzaz kalejira Urumeara Plaza Haunditik abiatuta Egia-Loiola mugan.

17:00 Garai zaharretan bezela KOADRILEN ESTROPADA Urumean. Gogoratu ito aurretik: garrantzitsuena parte hartzea da.

17:30 3x3 BASKET TXAPELKETA + DJa Maria Reinan.

20:30 Estropada ondorengo sari banaketa, Pilotaleku ondoan.

21:00 Urumean edo txosnetan ito ez direnentzat GAZTE AFARIA Plaza Haundin. Pilotaleku parean.

22:00 KONTZERTUAK Plaza Berriko Karpan: Blaka, Npj, Skakeitan, Xalbala.

17 Elkartasun Eguna LARUNBATA

08:00 LAGUNAK txaranga auzoan zehar.

10:30 BIGARREN ESKUKO AZOKA eta TRUKE AZOKA Tejerian EGIA BIZIRIK, munduko auzo elkarte onenak antolatuta.

11:00 ZAZPIRETAN LEHENAK JOTEROAK Plaza Haundin. Gora La Nabarra Marítimaaa!

11:00 GLADYSERA ITZULERA: BAPATEAN ZIRKOA eta "PON ta PA" ikuskizuna Gladys Enea parke maitean.

11:00 Txokolate jatea Gladys Enean.

2011

INFO+ NAHI BADUZUE HEMEN AURKITUKO GAITUZUE

www.porrontxojaiak.org
porrontxojaiak@porrontxojaiak.org

12:00 Ondoren ZILIPURDI ZIRKO TAILERRA haurrentzat jakina. Besteok izorrai!

12:00 PATATA TORTILLA TXAPELKETA + EUSKAL TXERRI ERREA + SAGARDO DASTAKETA Plaza Haundin. Denetarik aizue!

14:30 KOADRILEN BAZKARIA lekuz aldatu eta Plaza Haundira. (Bai, kafea eta kopa etxearen kontura!).

16:00 ESKUBALOI TXAPELKETA kiroldegian Egia Eskubaloiak antolatuta.

16:00 PALA FINALAK frontoian.

17:00 Eta digestioa egiten hasten geanean KOADRILEN OLINPIADAK (ez kolunpiadak) Plaza Haundin.

17:00 KAÑA 2KAÑA Trikitilariek alaitutako buruhaundi eta erraldoien kalejira.

18:00 EIDABE taldearen "DJ THOBBEN ETA LORE POWER" ikuskizuna Plaza Haundin. Donostia Kultura.

18:30 DANBORRADA HERRIKOIA txarangak lagunduta. (Egia ez da Ñoñostia, baina danborrada jotzen degu).

20:00 TREBESKA taldearen dantzaldia Plaza Haundin.

20:00 Sudur puntan ikus-entzunezkoen lagunketaren sari banaketa Plaza Berriko Karpan.

21:00 Zezensuzkoa Tejeria kalean.

22:30 DJ-ak Plaza Berriko Karpan.

23:00 LAGUNAK txaranga auzoan zehar.

23:00 DANTZALDIA gerri horiek! LAKET taldearen emanaldia Plaza Haundin.

01:00 BALDARRAK txaranga auzoan zehar.

00:00 KALEJIRA + AURRESKU HERRIKOIA Porrontxo & Porrontxina eta zanpanzarrekin.

18 Euskal Jaia Igandea

07:00 GOSARIA Plaza Haundin. Menua: OILASKO ERREA. (Esan Oilaskori turnoa daukala).

08:30 JATORRENAK txaranga Egian zehar. Non bestela?

10:00 XIV. HERRI KROSA, trikitilariak ere haundik ibiliko omen dira.

11:00 Eta ondoren PILOTA FINALAK. Trikitilariak horra ere joango dira.

12:00 Amaia Agirre, Jokin Labaien eta Aitor Mendiluze BERTSOLARIAK eta SAGARDO DASTATZEA Plaza Haundin.

14:30 BAZKARI HERRIKOIA Plaza Haundin, Donosti-gain, Ur Zaleak eta Arrano elkarteek antolatuta.

17:00 Plaza Haundin HERRI KIROLAK. Hau da hau sasoia! Trikitilariek alaituta.

19:00 SARDIÑA ERREAK Plaza Haundin.

19:00 DANTZALDIA ARRABOTS taldearekin. Presta zaitezte dantzarako!

20:00 JATORRENAK txaranga auzoan zehar.

21:30 Koadrilen KALEJIRA Porrontxina & Porrontxorekin.

22:00 AZKEN TRAKA.

00:00 Gui ar de guorld.

Porrontxo jaiak
egia
irailak
8tik 18ra

PORRONTXO JAIAK 2011
Irailak
8tik 18ra
EGIA
31.urteurrena

31. urteurrena
Porrontxo
jaiak 2011
Irailak 8tik 18ra
Egia

Porrontxo Jaiak
2011
Irailak 8-18 Egia
Gure edalontziekin sudurrak aske!!